

BEZEROEKIKO HARREMANA

Garrantzitsua da gure enpresak bezeroekin harremanetan egoteko aukera edukitzea eta beraien fidelizazioa mantentzea. Gure helburua erosleei zerbitzu eta produktu ezin hobeak eskaintzea da. Horregatik, arazoak gertatuz gero irtenbideak proposatzeko gai izango ginateke.

Hori gerta dadin, gure webgunean telefono zenbaki bat izango dugu, martxan egongo dena dei horiei erantzuteko, bezeroen zalantzak argitzeko. Halaber, sare sozialetan zuzeneko mezuen bitartez komunikatzeko aukera eskaintzen dugu, elkarrizketak modu idatzian geratu daitezzen. Horretarako, Oier Azkue izango dugu, mezu eta dei hauei erantzuteko. Bestalde, gure webgunean erreklamazio-orriak idazteko aukera egongo da, gure akatsetaz ohartzeko eta hauek zuzendu ahal izateko.

Guk nahi dugun sortu enpresa hau aurrera ateratzeko eta arrakasta izateko, guztiz beharrezkoak dira pausu batzuk ematea, eta garbi dago kostu bat izango dugula bezeroei gure produktuaren berri emateko.

Lehenik, sare sozialetan gure proiektuaren berri emango genuke, publizitate erreminta moduan, pertsonak gure enpresari buruzko informazio guztia eskuragarria izan dezaten, eta edozein kezkaren aurrean gurekin harremanetan jartzeko. Kanal honekin, atentzioa gazteengan zuzentzen dugu, hauek sare sozialak asko erabiltzen baitute.

Horretarako, gazte askorengan gerturatu ahal izateko eta jarraitzaileen leialtasuna lortzeko, influencer ezberdinekin kanpainak egingo genituzke. Instagramen gure produktuen argazkiak eta bideo motzak publikatuko ditugu, bakoitzari dagokion informazioarekin. Bestalde, Tik Token, bideo motzak bai luzeak publikatuko ditugu. Luze hauetan, Alex Gomezek puskatutako betaurrekoak nola konpontzen dituen erakutsiko dugu, horrela ikusleei interesa eta miresgarritasuna piztuz. Baita ere, sare sozialetan ohartaraziko ditugu deskontuak, zozketak, eguneratzeak...

Beste alde batetik, Euskal herrian begitako arazoak dituzten pertsonak izango dira gure bezeroak, betaurreko berrerabilgarriak egiten baititugu. Horrek ez du esan nahi Euskal herrikoa den beste edozein pertsona etor ez dezakeenik, pertsona guztientzat irekiak gaudelako.

Halaber, Euskal herriko irratiekin akordio batera iritsiko ginateke, hauek Euskal irratietatik gure zerbitzuaren berri emateko. Azkenik, Argia, Berria eta “el diario vasco” aldizkariekin harremanetan jarriko ginateke, aldizkarietan gure zerbitzuari publizitatea emateko. Kanal honekin, pertsona helduagoen atentzioa bilatzen dugu, hauek ohikoagoa dutelako aldizkariak irakurtzea edo irratia entzutea, gazteek baino

Gure asmoa esperientzia ahalik eta erosoan kudeatzea da, produktua erosi ondoren bezeroek izan ditzaketen iritziei erreparatuz edo, hala badagokio, arazoak konponduz.